



ABEREAK LARREETARA JOATEKO ORDUA

Maiatzaren 1ean Larre Irekieraren festa egingo dute Larraitzen; Guillermo Olmoren eskultura inauguratuko dute >5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-04-28

VIIURTEA 1.687.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Gazteek hartuko dute protagonismoa aurtengo Gipuzkoa Encounter-en

TOLOSA Maiatzaren 1ean irekiko ditu ateak Usabal kiroldegian, eta maiatzaren 3ra arte iraungo du festak

HELBURUA Arlo ezberdinen bitartez gazteak hurbildu nahi dituzte; ekimena gizarteratzea da aurtengo xedea 2



Parte-hartzaileak lasterketaren irteeraren unean. IVUYA URRUTIA

AMILIBIA ETA GARIN IRABAZLE LOATZOKO IGOERA-JAITSIERAN

AMASA Hamazazpigarren aldiz egin zuten proba herenegun; pasa den urteko irabazle berdinak izan ziren; eguraldiak proba zaildu zuen 4



Triangulo plazan egin zioten harrera; irudian, lore eskaintzaren unea. HITZA

Ongietorri beroa egin diote Jabi Gordo preso ohiari hainbat herritarrek

TOLOSA Larunbatean utzi zuten aske; maiatzaren 8an egingo diote omenaldia 3



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat sarrera pareta du

Bruesa GBC Ricoh Manresa

Donostiako Illunben Apirilak 30, Osteguna • 20:00etan

sarrerak eskuratzeko deitu goizez: **943-65 56 95** harpidedun kodea eskura duzula jasotako deli guztien artean zozketa egingo dugu.



TXOKOA hitza

Laburrak**Hitzaldia, eta gurasoen batzarra, Samaniego**

HEZKUNTZA ● Gaur, elkarbizitza plaren baitan, gatazkak konpontzeko modu positiboak gaiaren inguruko hitzaldia izango da Samaniego ikastetxean. Hizlaria Geuz taldeko arduraduna den Lucia Gorbeña izango da. 16:30ean izango da saioa, Haur Hezkuntzako erabilera anitzeko gelan. Bestalde, bihar, ikastetxeko gurasoen urteko Batzar Orokorra egingo da Kultur Etxean, 19:00etan. Bertan, Gorostiren urteko balantzea euren kezteaz gain, aurrerantzean egingo dituzten ekintzak eta kezak argitzeko aukera egongo da.

Real Sociadakoak Berazubini izango dira gaur

KIROAK ● Real Sociedad-ekoak Berazubiko estadioan izango dira gaur goizean. Taldearen mendeurrena ospatzeko asmoz, eskualdeko herrietako Udal ordezkarietara urteurreneko banderak emango dizkiete. 11:00etan hasiko da ekitaldia, eta ondoren, entrenamendu bat burutuko dute bertan.

Bihar iluntzean ohiko osoko bilkura izango da

POLITIKA ● Gaur 19:30ean, Osoko Bilkura izango da udaltxeko batzar aretoan. Besteak beste, ondorengo gaiak eztabaidatuko dituzte: Tolosako herri elkartetako 2 ordezkari izendatzea lurreamendi Egoitzako zuzendaritza batzordean; lurreamendi Egoitzarako herentzia bat onartzea; Alhondigan dagoen plaza berri baten izendapena onartzea eta EB-Aralarrek aurkeztutako mozioa: UEMA n sartzeta.

Etzi Bordondantzako entseguak hasiko dituzte

GIZARTEA ● Sanjoane begira, Uda-berri dantza taldea Bordondantzako prestaketekin hastear da. Etzi, hilak 30, egingo dute lehendabiziko entsegua. Hau, 20:30ean izango da, Usabal kiroldegian. Hemen-dik aurrera ostegunero izango dira saioak.

Iragarki laburrak**LANA**

■ **Zaintzailea.** Emakume eskalduna eskaintzen da, auxiliari tituluduna, gaixoak zaintzeko ere gaez. Harremanetarako deitu ondorengo telefono zenbakira: 609 15 85 19.

■ **Zaintzailea.** Neska euskaldun bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. Orduetgia: goizeko 10:30etik eguerdiko 13:30era. Harremanetarako deitu ondorengo telefono zenbakira: 625 70 50 59.

Gazteei zuzendutako ekimenak izango dira aurtengo Gipuzkoa Encounter-en

Tolosa ● Ostiralean hasiko da jaialdia eta igandera arte luzatuko da; Usabalen ez ezik, kanpoan ere izango dira ekitaldiak.

ERREDAKZIOA

Ordenagailu eta teknologia berrien zaleak beteko da beste behin ere Usabal kiroldegia. Hirugarren aldiz, Tolosako Udalararen eta Euskaltel fundazioaren eskutik, bertan ospatuko da Gipuzkoa Encounter. Maiatzaren leian, 10:00etan irekiko ditu ateak, eta maiatzaren 3ko 18:00ak arte luzatuko da. Denera, 400 ordenagailu izango dira sarera konektatuak eta 700 lagunek hartuko dute parte.

Atzo aurkeztu zuten ekitaldia Tolosako Gazte Topagunearen egoitzan. Bertan izan ziren, besteak beste, Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea; Joxelu Andueza, Gazteriako Zinegotzia; Sabino San Vicente, Gipuzkoa Encounter-eko arduraduna; Jexux Arregi TLHI-ko zuzendaria eta Garikoitz Murrúa eta Ibai Luke, Tolosako GKO arte galeriakoak.

Jaialdiak irauten duen hiru egunetan, era guztietako ekintzetan parte hartu ahal izango dute bertaratzen direnek: ordenagailuko jokoak, bideo-jokoak, tailerrak, hitzaldiak, diseinu grafikoa, musika sortzea eta animazio digitalak. Aurten, iaz bezala abiadura izugarria izango da, 1.000 megatakoa.

Usabalen bertan, Tolosako Udalak beste 15 bideokontsola jarriko ditu nahi duen orok erabil ditzan. 10:00etatik 00:00etara egongo dira piztuta eta era guztietako jokuak izango dituzte: Wii Sports, Pro Evolution Soccer, Virtual Tennis, NBA Live, Singstar, Guitar Hero, Mario Kart Wii... Bestalde, Gazte Topagunearen egoitzan



Atzo arratsaldean aurkeztu zuten jaialdia Gazte Topagunearen egoitzan. ESTI EZEIZA

hainbat ordenagailu jarriko dituzte, eta hauek, Internet bidez, Usabal kiroldegikoekin lotuta egongo dira. Hala, txapelketa ezberdinak jokatu ahal izango dituzte elkarrekin.

Aurtengoan, gazteak protagonista

Aurten gazteak izango dira Gipuzkoa Encounter-en protagonista, eta ekitaldietako asko beraiekin zuzenduta egongo dira. Hala, Jokin Bildarratzek agertu bezala, arlo ezberdinak jorratuz, modu batera edo bestera erakarri dituzte gazte tolosarrak.

GKO Gallery, gazte artisten taldeak ere bat egin nahi izan du ekimenarekin. Honela, hauek antolatutako jardueretarako, tolosarrek Gipuzkoa Encounter-eko parte-hartzaileek bizi dituzten esperien-

tzia gertutik ezagutu ahal izango dituzte. GKO-ko kideen esanetan, «hasteko Gipuzkoa Encounter zeren jakin nahi genuen, eta hau ezagutzeko, konturatu ginen sormen lan handia dagoela jaialdi honen baitan». Hori dela eta, hau erakutsi nahi diegu herritarrei. Hau, Usabalen biltzen ditugun irudiak, hiriko erdigunean kokatutako hainbat pantailatan proiektatuz egingo dugu».

Gazte lokaletakoek ere beraian abileziak erakusteko aukera izango dute asteburu honetan. Lokal ezberdinetako gazteen artean txapelketa jokatu baitira. Bestalde, Lanbide Heziketako ikasleek, urtean zehar ikasi dutena praktikan jartzeko, beraiek arduratuko dira Gipuzkoa Encounter-en muntaia lanez. Jesus Arregi TLHI-ko zuzendariaren hitzetan

«gure ikastetxean lantzen den arloetako bat informatika da, eta ekimenaren parte hartzeko gonbita egin zigitenean, aberasgarria izan zitekeela pentsatu genuen».

Sabino Sanvicentek atzoko agerraldian azaldu zuenez, aurtengo Gipuzkoa Encounter-en eronka berri bat aurrera atera nahi dute eta egitasmoa gizarteratu. Bere hitzetan, «orain arte, horrelako jaialdiak antolatu ditugunetan, beti pertsona berberak aritu gara lanean, baina oraingo honetan, normalean, mundu honekin harremana ez duten pertsonak ere erakarri nahi izan ditugu». Horren adibide da, Lanbide Heziketako ikasleak ekartzearen muntaia, gazte lokaletakoana eta GKO Gallerykoena. Antolatzaileen ustetan hau aberasgarria izango da, eta jendearengana hurbiltzeko balioko du.



Peter Panen itzalaren atzetik

ZIZURKIL ● Antzokian gaude izenburupean Zizurkilgo eta Villabonako udalek antzerki jardunaldiak antolatu dituzte. Atzokoan Txalo Produkzioak taldearen *Kanpanilla* eta *Peter Panen itzala* obra ikusteko aukera izan zuten Zizurkilgo 3 eta 6 urte bitarteko ikasleek. Iraitz Lizarraga aktore zizurkildarrak *Kanpanilla* pertsonaia antzeztu zuen. Gaur ere ikasleei zuzenduta emandia izango da. Kasu honetan *Dar-Dar* Produkzioak taldearen *Eta zer?* antzezlana Gurea aretoan izango da. I. GARCIA

Ongietorri beroa egin diote hainbat herritarrek Jabi Gordo preso ohiari

Politika » Larunbatean utzi zuten aske, hiru urte eta erdi espetxean izan ostean; maiatzaren 8an egingo diote harrera ekitaldia.

ERREDAKZIOA

Iragan larunbatean, libre geratu ostean, Jabi Gordo Castro preso ohi tolosarrari harrera egin zioten hainbat herritarrek Tolosako Amnistiaren Aldeko Mugimenduk deituta, Triangulo plazan.

Lore eskaintza egin zioten, eta aureskua ere dantzatu zuten Gordoren omenez. Ekitaldi xumea baina hunkigarria izan zen, izan ere, «zerbait motza izatea nahi genuen, Jabiri lasaitasun pixkat emate aldera». Dena den, maiatzaren 8rako aurrekusi dute ekitaldi nagusia, «bera eta espetxean geratu diren kideak merezi duten omenaldia». Amnistiaren Aldeko Mugimendutik «egun zoriontsua» izan zela adierazi dute, «espetxe-tako bakartasuna urruti utzi, eta Jabi gure artean aurkitzen baita».

Jabi Gordo 1988an atxilotu zuten etakide izatea leporatuta, eta hilabete batzuk espetxean pasa ondoren kaleratua izan zen epaiketa egin bitarte. Mexikora alde egin zuen 2005. urteko abenduaren hasieran atxilotua izan zen arte han bertan. Espainiaratu egin zuten, eta azken hiru urte eta erdiak Espainako hainbat espetxetan egon da, larunbatean Langraitzeko espetxea utzi zuen arte.



Goian, Jabi Gordori lore eskaintza egin zioten uena. Behean, aureskua dantzatzeko, Triangulon. HITZA

Krisiari buruzko eztabaida, bihar, 'Maiatza Gorria' jardunaldien barruan

Gizartea » Sanblaspiko Gazte Asanbladak antolatuta dituen ekitaldiak; Kultur Etxean, 18:30ean izango da eztabaida.

ERREDAKZIOA

Sanblaspiko Gazte Asanbladak antolatuta duen *Maiatza Gorria*-ren baitan, bihar Tolosako Kultur Etxean mahai ingurua izango da krisiaren inguruan. 18:30ean hasiko da, eta bertan ELA eta LAB sindikatuek, Euskal Herria Sozialista aldizkariak eta Boltzek hartuko dute parte.

Ekitaldiek ostiralean jarraituko dute, Otsabi elkartean, 18:30etik aurrera izango diren kontzertuekin, Peachy Joke eta talde gonbidatua ariko dira, hain zuzen.

Nagusitasunez irabazi du partida Laskorainek Orioren aurka

Areto futbola » 5-2 irabazi zuten horitxoek; Telletxeak, Barriolak, Telleriak eta Saldiasak sartu zituzten golak.

ERREDAKZIOA

Herenegun goizean jokatu zuen partida Laskorain areto futbol taldeek Orioren aurka, eta nagusitasunez, 5-2ko emaitzarekin irabazi zuten. Denboraldiko azken derbi gipuzkoarra izan zen, eta horitxoek jokoan ezer ez bazuten arren, kostakoek jaitzieratik urruntzea zuten helburu. Ez zuten lortu, ordea, punturik batzea, etxekoek eraman baitzituzten.

Neurketa ez zen «batere samurra» izan ikastolakoentzat. Alonsoren mutiak derbiari erritmo altua ipini zioten, laukoteak txanda-

katuz baloiaren jabetza eta jokoaren ekimena bereganatuz, baina Orio talde gogorra zuten aurkari. Gainera, Telletxeak sartu zuen gol azkarrak ere ez zuen erraztasunik sortarazi eta atsedeneren aurretik kontraerasoan banakoa egin zuten oriotarrek.

Bigarren erdiaren hasiera lehen zatiaren antzekoa izan zen. Jokoa jaun eta jabe horitxoak izan ziren, eta beraiek aurreratu ziren markagailuan Barriolak sartutako «gol eder» bati esker. Baina minutu gutxira bisitariak binakoa ipini zuten kontraeraso bat baliatu ostean. Laskoraingoek jokoan nagusitasuna erakusten zuten, baina ezin zuten markagailuan islatu.

Tolosarrek aurrera egin zuten, eta konfiantza hartuz joan ziren. Hala, Telleriak hirugarrena sartu ahal izan zuen. Golaren ondoren, gogorak minutuetan eta partidaren hon-

darrean ez zuten gehiegi sufritu gainera, zer esan handia izan zutelarik Saldias kapitainak eta Telletxeak sarturiko goleki. Hurrenez hurren laugarrena eta bosgarrena sartu zituzten, eta markagailua horrela geratu zen, 5-2, hain zuzen ere.

«Etxeko lanak ederki betetako sentsazioarekin» irten ziren Usabal kiroldegitik Jabi delegatua, Alonso entrenatzailea eta Endika, Telleria, Amatriain, Barriola, Telletxea, Lander, Murgi, Gil, Zubillaga, Saldias eta Otxoa jokalariek.

Gaztetxoak igoerarako lehian

Bestalde, Jabi eta Andoniren filialak 2 eta 1 galdu zuten liderraren aurka, baina igoerarako play-offean sartzeko aukerak indarrean jarraitzen du. Hain zuzen, aste honetan izango du hilala biziko partida 2king-uak taldearen aurka.

Punturik gabe itzuli da Tolosa Hernaniren aurkakoan galdu ostean

Futbola » 3-1 galdu zuten; hirugarren dira tolosarrak, lau puntura dute bigarrena, eta bederatzira liderra.

ERREDAKZIOA

Tolosak sartu zuen Hernaniren aurkako partidaren lehendabiziko gola, Ugartemendiaren eskutik, baina, hala ere, Hernani izan zen irabazi zuena, hiru gol egin baitzituzten. Rincon, Kijera eta Aginagaldek egin zituzten Hernanikoek golak.

Azken jardunaldia eta gero, 52 punturekin daude tolosarrak, hirugarren postuan. Oraindik, beraz, badute gorantz begiratzeko aukera, baina, goian dauden taldeekiko distantzia handiagoa da. Hernani lau puntura dago, 56 punturekin, eta liderra, hau da, Aretxabaleta, 61 punturekin. Era berean, atzetik datozen taldeak gertuago ditu Tolosak, Pasajes, Real Union eta Aloña Mendi, hain zuzen.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarano autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

G Gutunak

Gazume bakan utzi

Egunotan, harriduraz eta amorruz, Industria Departamenduak eta Orisol enpresak Gazumen egin nahi duten astakeriaren berri izan dugu. Han goian, hamabost haize-errota jarri nahi dituzte. Horietako bakoitzaren zutoinak 71 metroko altura eta 3,5 metroko diametroa izango ditu. Hegalek, berriz, haizeerrota bakoitzeko hiru, 25 metroko luzera izango dute.

Horretarako, bi bide berri ireki

nahi dituzte. Bata, Iturriotz eta Gazume bitartean, Leizeberritik barrena. Bi kilometro baino gehiago izango ditu luze eta 7 metro zabal. Izan ere, 100 toneladako kamioiek erabiliko dute. Beste bidea, berriz, hiru kilometrokoa, Gazume bertan egiteko asmoa dute, Aketegi eta Mendi Beltzatik barrena. Bigarren bide horrek haize-errotak lotuko lituzke.

Gazumen sortutako energia Azpeitira eramateko 7 kilometro kable instalatuko dituzte, dorreak eta guzti, jakina.

Gazume nola geratuko den? Erabat industrializatua, bide batek alde zeharkatua, hegaztientzat tranpa bihurtuko diren kablez inguratuta eta zarataz ongi hornituta (50 dezibelio baino gehiago Zelatunen).

Eta hori guztia, berebiziko balio naturalak dituelako LIC (garrantzi komunitariko tokia) bezala sailkatuta dagoen eremu batean. Horrelako astakeriak baimentzen badira, zertarako LIC izendatu?

Proiektu hau gauzatzen baldin bada, baliotsuena ere galduko

dugu: paisaia, Erniok, Zelatunek eta Gazumek osatutako paisaia, alegia, Gipuzkoako leku asko eta askotatik egunero gozatzeko aukera duguna. Beraz, hori ere galduko dugu, eta zertarako? Castilla-La Manchako Aurrezki Kutxak eta Espirito Santo Banketxeak dirua irabazteko.

Proiektu bidegabe hau txintik esan gabe onartu behar al dugu? Eguzkikook, behintzat, ez dugu isilik egoteko asmorik. Egia esan, asko dira proiektuaren kontra mugitzen hasi direnak: SEO, La-

gun Onak mendi taldea, Club Vasco de Camping, Sagain... Momentuz, proiektuaren kontrako atxikimenduak biltzen eta alegazioak egiten ari gara.

Bainan zerbait gehiago egin behar dugu.

Zer iruditzen zaizue kontzentrazio bat Gazumen bertan?

Gazume babestea gure esku dago. Gazume eta bere ingurua maite baduzu, zaindu maite duzun hori.

Juan Mari Beldarrain. Eguzkiren kidea.

Garin eta Amilibia irabazle Loatzoko Igoera-Jaitsieran

Amasa » Iazko proba ere bi korrikalari horiek irabazi zuten; hainbatetan izan dira txapeldunak lasterketa horretan.

ERREDAKZIOA

Loatzoko XVII. Igoera-Jaitsiera egin zen herenegun Amasan eta guztira 42 parte-hartzaile izan ziren. Gizekoen azkarrena Juan Mari Garin izan zen eta emakumezkoen Nerea Amilibia. Biek, beraz, iaz lortutako garaipenak errepikatu dituzte eta dagoe-

neko bi korrikalari hainbatetan irabazi dute proba hori.

Gizekoen bigarrena Luis Mari Otegi izan zen eta hirugarrena Luis Lasa. Emakumezkoen bigarren postuan Idoia Ezeiza sartu zen eta hirugarrenean Marian Rosa. Iazko parte-hartzaile kopuru beretsua izan zen lasterketan. Horietatik hiru izan ziren emakumezkoak.

Eguraldi txarrak ez zuen lagundu aurtengo Loatzoko Igoera-Jaitsieran eta beste urteetako parte-hartzaile kopuruetara ez zen iritsi proba. Hori bai, jende dezente izan zen Amasan korrikalariak ikusten



Bi irabazleak, Juan Mari Garin eta Nerea Amilibia, probaren azken metroetan. J. UYU URUTIA



eta animoak ematen. Parte-hartzaileek bide guztia lokaztuta izan zuten eta horrek berez zaila den proba oraindik gehiago gogortu

zuen. Behin proba amaitu eta gero eta sariak banatu baino lehen, hamaiketako eman zuten antolatzailerak Uxo-Toki elkartearen au-

rreraren. Parte-hartzaileentzat zein ikuslegoarentzat izaten da mokatutxoak hartzeko aukera eta jendez gainetza egon zen.



harpidedun izateak badu saria

- ① 2 lagunentzako otordua

Iriarte Jatetxean

Joxe Mari Goikoetxea, 34
Berrobi • Tel.: 943-683 078



- ② antzerkirako 2 sarrera

Ate joka antzezlan

Maiatzak 9 • Larunbata
20:30ean • Tolosako Leidorren



- ③ zinerako 2 bonu

Tolosako Leidorren maiatzean eskainiko den edozein filmerako



- ④ arabar errioxako 2 ardo kaxa

Ezkerro edariak banatzaileak eskainitako ardo botilekin



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea eskura duzula]

Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Iazko animalia kopuru beretsua igoko da Aralarrrera, Larreen irekierarekin

Abaltzisketa » Larraitzen duela 12 urte hasitako festa izango da datorren ostiralean ere; guztia 10:00etan hasiko da.

NEREA URBIZU

Maiatzaren leian, duela 12 urte hasitako festaren eguna ospatuko dute Larraitzen: Larre irekiera, hain zuzen. Egun honek, Aralarrrera aziendak igotzeko eguna simbolizatzen du, baina Joxe Antonio Irastortza Enirio Aralar Mankomunitateko basozainak esan bezala, «ez dira egun horretan animalia guztiak igotzen, inolaz ere».

Dena dela, iazko kopuru beretsua errepikatuko da, izan ere, 18.000 ardik, 650 behorrek eta 700 behik bazkatuko dute Aralarro lurretan. «Animalia hauek dira bertaritzen dituztenak, makalena bat edo txerriren bat edo beste ere igotzen dira, bordaren ondoan egoteko».

600 urte beteko dituen Enirio Aralar mankomunitatea osatzen duten 15 Udalerrietako artzain eta abeltzainek dute aziendak bertaritzeko eskubidea. «Baina, azkenaldian, eta Gipuzkoako artzain eta abeltzainak laguntzeko asmoarekin batez ere, 15 herri hauetaz gain, beste herri batzuetatik ere etor daitezke, beti ere, lehenasuna Mankomunitateko izanik. Honetatik kanpo daudenek baldintza batzuk bete beharko lituzkete: esaterako, ardiak bakarrik ekar ditzakete, Mankomunitateko herriraino errodututa egon beharko lirarteke, artzaintza lanbidetzat izan beharko lukete, eta abar». Esaterako, Errezildik, Villabonatik, Errenteritik edota Hernanitik etorriko dira Larraitzera.

Harrespilaren inaugurazioa

Amezketako Guillermo Olmo eskulturgileak egindako harrespila inauguratuko dute eguerdian bertan. Harrespila osatzen duten 16 harriak landuta daude, bakoitzak bere forma izanik. Egun batzuetan zehar aritu dira Txindokira igotzeko Larraitzik hartu beharreko bidean harkaitz hauek kokatzen, azolanean.

Enirio Aralar Mankomunitatearen 600. urteurrena dela-eta egin du Olmok eskultura hau, hala eskatuta. Harri bakoitzak Mankomunitateko herri bana irudikatzen du, eta hamaseigarrenak, Nafarroa. Irastortza basozainak esan bezala, «mankomunitatea bera simbolizatu nahi izan du. Urte hauetan zehar liskarrak edo arazak izan dira herrien artean eta hauek ahazteko edo tapatzeko eran daude jarrita, denen artean borobila osatuz».

Horregatik, omenaldira herri



Animalien igoera baino, azokak eta erakusketek dute garrantzia Larraizko Larreen irekieran. NAIARA GARZIA

guztietako ordezkariak joango dira, Gipuzkoako ahalduen nagusia den Markel Olanoz gain. Hauek dira herriak: Amezketak, Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta, Balarra, Beasain, Ataun, Lazkao, Gaintza, Arama, Altxaga, Itsasondo, Legorreta, Ordizia eta Zaldibia.

Mieltxo Saralegi harri-jasotzailea Antzi harriarekin

Iaz Mari Jose Sardon harri-jasotzailea izan zen jaian. Aurten, nafar bat gonbidatu dute: Mieltxo Saralegi leitzarra, hain zuzen ere. Hala ere, ez da harri erregular batekin ariko. Orain arte probatu ez duen Aralarro harri bat altxatzen ahaleginduko da: Antzi harria, hain juxtu ere.

Antzi harria aspaldian ez da altxatzeko erabili, joan den azarora arte, Amezketako plazan. Orain gutxi arte Aralarro Aintzegi deitutako parajeen zegoen, Pardeluts iturritik oso hurbil.

Asko eta asko izan dira bizkarrean igotzen saiatutakoak. «Ez da pisu handikoa, 140 kilo inguru ditu eta, baina traketsa da oso», eta urte

» EGUNeko EGITARAUA

- **10:00.** Azokako postuak irekiko dituzte. Arkupe dantza taldea eta trikitilariak festa gunean izango dira.
- **11:00.** Larraizko ermitan meza.
- **11:30.** Artzain txakurren erakusketa, Artxate taldearen eskutik.
- **12:00.** Enirio-Aralar mankomunitateko Harrespila (Guillermo Olmo) inauguratuko dute.
- **Jarraian.** Etxafuego larreen irekiera iragarritz.
- **Ondoren jaialdia.** Mikel Mendi-

oso aire librean egiten zuzenez, azalera latz eta zakarrekoa da.

Aralarko larre irekiera Larraitzen: 10:00etan salmenta-erakusketa postuak, 11:00etan Euskal Herriko salbamenduko txakur taldearen erakustaldia egingen dute; 12:00etan etxafuegoa eta Benta Zaharreko Mutiko Alaiak; Bixente Gorostidi eta Mikel Mendizabal bertolariak.

Juan Mari Beltran ere, gonbidatuen artean

Egitarauan musikari ere tartea egin diote. Erromeria izango da arratsaldean, eta bertolariak ere bai. Aurten, Juan Mari Beltran ere gonbidatu dute Larraitzera. Bere jarduerarengatik, Juan Mari Beltran euskal herri musikako ikeritzaile, eragile eta irudi garrantzitsuenetakoa dugu. Kasu honetan, lau bat euskal musika tresnarekin egingo du erakustaldia.

Gaztetik ibili da Beltran musika inguruan, lehenik klarinetea eta txistua jotzen eta ondoren aurreko belaunaldiko herri musikaren testiguen arduraduna bihurtuz.

zabal eta Bixente Gorostidi bertolarien saioa. Mieltxo Saralegi harri-jasotzailea Antzi harriarekin. Juan Mari Beltranen eskutik musika erakustaldia eta emanaldia.

- **Azokaren inguruan.** Abere erakusketa, eskulangintza, artilea, saskigintza, ohiko tresnen erakusketa, bertako produktuen salmenta, oreinen produktuak, Aralarro liburuak, mapak eta liburuxkak...
- **17:00.** Erromeria Larraizko trikitiarekin.

Laburrak

Herri Urratsera joateko autobusa antolatuko dute

IKAZTEGIETA • Maiatzaren 10ean Herri Urrats euskararen festa izango da Senperen. Bertara joateko Ikaztegieta udalak autobusa antolatuko du. Izena emateko azken eguna hilaren 6 (asteazkena) izango da. 8 euro ordaindu beharko da izena emateko unean, udalarekin bertan. Autobusa antolatze-ko 22 laguneko taldea osatu beharko da. Hau da udalarekin telefonoa: 943 65 33 29.

Haur eskolari buruzko bilera 19:00etan gaur

ALEGIA • Haur eskolari buruzko bilera antolatu dute gaurko Alegian, 19:00etan udalarekin bertan. 2009-2010 ikasturterako, hau da, datorren irailetik aurrera herrian haur eskola (0-2 urte arteko umeentzat) martxan jartzeko asmoa du Udalak eta, besteak beste, esku artean duten proiektuaren berri emango dute bertan. Beraz, interesatu guztiak gonbidatuta daude.

Gorrierari buruzko hitzaldia Alkartasunan

ANOETA • Hitzaldi interesgarria izango da bihar, 18:30ean, Anoetako Alkartasuna biltokian. Gorrierari buruz izango da solasaldia. Urtero bezala, gorrierari, hura aurrezaintzeko egun bat eskaini diote. Bertan, arazoak aurrekusteko eta entzumenari buruzko aholkuak jasotzeko aukera izango da. Hitzaldia 50 urtetik gora dutenentzat eta zarata handiko lekuetan lan egin edo bizi denentzat gomendagarria dela azaldu dute antolatzaileek.

MAIATZAK 1

langileon borrokaz
**EUSKAL HERRIAK
ALDAKETA**

Gasteiz: Bilbo plaza 12:30 Bilbo: Zabalburu 12:00
Donostia: Bulebarra 12:30 Iruñea: Golem 12:00
Baiona: Geltokia 10:00 Maule: Gurutze Xuria 12:00

maiatzaren 21ean
GREBA OROKORRA

LAB

Koldo Alonsok Michelin Power Cupeko 3. postua eskuratu dezake

Ibarra » Ibarra Racingeko kideak Castellolin izandako lasterketan bigarren egin zuen; datorren hitzordua maiatzaren 9an izango da.

ERREDAKZIOA

Ibarra Racing taldeko Koldo Alonsok geroz eta gertuago du Michelin Power Cup txapelketako hirugarren saria jasotzea.

Hilaren 18an Castelloloko (Herrialde Katalanak) lasterketan bigarren egitea lortu zuen motorzale ibartarrak eta horrek sailkapen orokorreko laugarren postuan egotea ahalbidetu dio.

Alonsok asko arriskatu behar izan zuen bigarren postua eskuratzeko, baina azkenean, ia sinestean ez bazuen ere, lortu zuen.



Koldo Alonso (ezkerrean), pozik, bigarren postua ospatzen. HITZA

Datorren lasterketa maiatzaren 9an izango da Albacete (Gaztelamantxa). Alonso une honetan hirugarren postutik puntu bakarrera

dago, eta beraz Albaceten lan txukuna egiten badu Michelin Power Cup hirugarren postua eskuratu dezake.

Itzuliko partidaren zain daude Zeberio II eta Ion errementistak

Elduain » Joaneakoan 25-40 galdu zuten Matxin II eta Urrutiaren kontra; itzuliko ostiralean izango da Tafallan (Nafarroa).

ERREDAKZIOA

Matxin III eta Urrutiak garaipen argia lortu zuten pasa den igandean Elduaingo Zeberio II eta Ionen aurka jokaturako Pacharan Baines Txapelketetako finalaurrekoetan. 25-40 egin zuten eta orain itzuliko partidaren zain daude Zeberio II eta Ion. Datorren partida Tafallan (Nafarroa) izango da ostiral honetan 17:00etan.

Beste finalaurrekoa, aldis, orekatuagoa izango da, izan ere Urri-

za-Badiolak I 37-40 emaitza lortu zuten Iñigo-San Miguelen kontra. Itzuliko partida larunbat honetan izango da 18:30ean Fontellasan (Nafarroa).



Zeberio II (ezkerrean) eta Urrutia, I.Z.

G Gutunak

'Gure Udal kudeatzaileen' faltsukeria eta zinismoa

Ibarrako Udaletxean Kultura Batzordearen bilera bat egin zen apirilaren 22ean.

Bertara Jose Ignacio Ayestaran (E.A.J) eta Itziar Jauregi (E.A) joan ziren Udaletik. Lehengo asteazkeneko bilera honetan, herriko kultur taldeei 2009. urtean eman beharreko diru laguntzak aztertutik behar ziren, beste hainbat gairen artean.

Aurreko Kultura Batzorde batean Koldo Cid (E.A.J) jaunak, Kontuen, Ogasunaren eta Langileen batzorde bereziko presidentek, krisiaren ondorioz kultur taldeei zuzentzen zitzaizkien diru laguntzak murriztuta gelditzekeela aipatu zuten zeharka.

2009. urteko aurrekontuak onartuta daudenez, hori zergatik egin behar zuten galdetu zitzaion pertsonaia honi; Ibarren alde euren denbora librean eta irabazi ekonomikorik ateratzeko asmorik gabe lan egiten duten herritarrei eraginaz gainera. Batzar honetan

beste gertakari adierazgarri bat gertatu zen, gure «Udal ordezkarien» gaitasuna agerian uzten duena: herritar batek Udalak zenbateko remanentea zuen —2008. urteko aurrekontuetan onartu zuten baina erabili ez zuten diru kopurua— galdetu zion Cid jaunari, honek lotsa gutxiarekin ez zekiela erantzun zion.

Nola da posible horren datu garrrantzitsu bat ez jakitea, sail horren arduraduna bera denean, gainera? Ez omen daki datu hori, baina kultur taldeei diru laguntza murrizteko mehatxuak zeharka egiteko gai bada pertsonaia hau. Tontotzat hartzen al dituzte herritarrek?

Zinismoaren gorena azken Kultura Batzordean etorri zen, lehen esan bezala iragan asteazkenean. Udalak diru laguntzen berri eman behar omen zuen bilera honetan. Aurrez, kultur talde guztiak euren proiektuak aurkeztu zituzten udaletxean, datoren barnean eta Udalak eskaturako baldintza guztiak puntuz-puntu zehaztuta.

Bilera honetan Jose Ignacio

Ayestaran jaunak hartu zuen hitza, herriko bi talderi diru laguntzak «momentuz» ez zaizkiela emango esateko.

Erabaki hau zergatik hartu zuten galdetu zitzaion. Itziar Jauregi andreak burua jeitsi eta aurreperra begiratzeko edukaziorik gabe, ez zuen ezer esan.

Ayestaran jaunak erantzun zuen: «Horrekin du esan nahi diru laguntzik gabe geldituko direnik. Zera esan nahi dugu: bi talde hauek berriak direnez, lehen aldiz eskatzen dituzten diru laguntzak, aurretik ezagutu egin nahi ditugula. Eurekin elkartu ondoren esango diegu diru laguntzak aurren edo hurrengo urtean emango zaizkien».

Hori zergatik egin zuten galdetu zitzaion: «Taldea horiek Udalak eskaturako baldintza guztiak bete baldin badituzte, zertara dator orain baldintza berri bat asmatzea, azken unean gainera. Zein irizpiderekin iri zerate erabaki hori hartzen?».

Itziar Jauregik berean segitu zuen, burua jeitsita. Ayestaranek

ez zekien zer esan. Taldeekin hitz egin behar zutela besterik ez zuten esaten. Kultur talde bateko herritar batek, eurekin horrela ez zutela jokatu esan zien «udal ordezkari».

Itziar Jauregi andreak orduan zeezer ahozkatu zuen, bi talde berri hauek euren proiektuak datu kampo aurkeztu zituztela. Gezurretan ari zela esan zitzaion Itziar Jauregi andeari. Hori ez zela horrela. Gainera dirudienez «udalordezkari» honek ez daki proiektuak udaletxean sartzen direnean zigitu jartzen zaiela, data daraman zigitu.

Hau al da udal baten funtzionamendua? Faltsukeria eta zinismoa.

Azkenik, ezker abertzaletik Ibarren eta gure kulturaren alde lanean ari diren herriko bi talde hauei babesa eskaini nahi diegu. Horrekin batera, kultur taldeei modu honetan egin nahi dizkien murrizketak eta azken uneko ezkutuko baldintzak salatu nahi ditugu.

Hautetsi independentistak. Ibarra.

Laburrak

Sexualitateari buruzko hitzaldia, gaur

IBARRA » Gaur 18:00etatik aurrera Lilima Taldeko Olatz Berastegik sexualitateari buruzko *Nola landu sexualitatea seme-alabekin?* hitzaldia eskainiko du Uzturpeko Areto Nagusian. Aipatu behar da aste honetan DBHko ikasleek sexu hezkuntzako saioak izaten ari direla eta dituzten kezka azalduko direla hitzaldian. Ekintza hauek Osasun Sustapen eta Heziketaren Berri-zapenerako Proiektuaren barnean kokatzen dira.

Azokan postua jartzeko izen-ematea etzi bukatu da

IBARRA » Ibarra Udalak epe laburrerako antolatutako azokan postua jarri nahi dutenek ostegun honetan izango dute izena emateko azken eguna. Eskaera egin nahi duenak Udalerako jabe harko du horretarako. Herritarrek bertako produktuak erosteko aukera izateko eta herri giroa areagotzen duen bilgune bat sortu nahian antolatutako azoka Udalak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Leitzarrak eta aresoarrak musikaren podiumean

Musika » IV. Satur Eleta Lehiaketa jokatu zen iragan larunbatean Lekunberriko Muxu Aretoan eta maila ezberdinetan.

ASIER IMAZ

Aralar Musika Eskolako ikasleen artean IV. Satur Eleta musika Lehiaketa jokatu zen iragan larunbatean Lekunberriko Muxu Aretoan.

Guztira 10 musikari leitzar eta aresoar iritsi ziren final handira hainbat kanporaketa gainditu ondoren. Akordeoia, pianoa, gitarra, saxofoia, txistua eta perkusioa be-

zalako instrumentuak jo zituzten Muxu Aretoan ospatu zen azken lehian.

Leitzar eta aresoarrekin batera Txapelketan Ultzamako, Basaburuako, Larraungo, Goizuetako eta Araitz-Beteluko musikariak aritu ziren.

Irabazleak eta saridunak

IV. Satur Eleta Lehiaketa musikarien urteen arabera, maila ezberdinak antolatzen dituzte. Leitzaldeko artistak lehen postuetan ibili ziren: 8-9 urteko bakarlarrien atalean lehen saria Leire Erbiti Goienetxek irabazi zuen pianoarekin.

Bakarlarrien mailan baina 10-12

urteko musikarien arloan, lehen hiru postuetan bi leitzar gelditu ziren. Lehen saria Manex Moreno Uhartek lortu zuen pianoarekin. Gitarra astinduz berriz hirugarren gelditu zen Mikel Sagastibelza Lasarte.

Bakarlariekin jarraituz, 13-15 urtekoak kasu honetan, Leire Zabalera Caballero azpimarratu behar da, izan ere, txistuarekin lehen saria lortu zuen leitzarrak.

Azkenik, 12 urtetik gorako hiru-koteetan, bigarren postua lortu zuten Lorea Zabaletak, Miren Juantorenak eta Zuriñe Goikoetxek. Azken hau, aurreko besteak ez bezala, aresoarra dela aipatu behar da.



Arabako parajeetan Geurea ikurriña aldarrikatuz ibartarrak. A. IMAZ

Drogen inguruko hitzaldia gaur 17:00etan Eskolan

Leitza » Teresa Martinezek gidatuko du hitzaldi-solasaldia; bitartean haurrak zaintzeko begiraleak egongo dira.

A. IMAZ

Denok Bat Guraso Elkarteak, Gizarke Zerbitzuen laguntzarekin, drogen inguruko hitzaldia antolatu du gaur 17:00etan Eskolako jan-tokian.

Teresa Martinez, Drogamenpe-

kotasunaren prebentzioarako zerbitzuko kidea, izanen da hitzaldia zuzenduko duena. Gaiari dagokionez, zehatz mehatz honakoa izanen da: *Gurasoak eta haurrak drogen aurrean*.

Irabazleak eta saridunak

Antolatzaileek herritarrek gonbidatu nahi dituzte gaurko hitzaldira ondorengo sareraren bitartez: «Hor daude drogak, era guztietakoak, hor daude gure seme-alabak, eta hor gaude gu, gurasook. Hor-txe dago gaia, eta ziur asko horren

inguruko hainbat iritzi, zalantza eta galdera dauzkagu. Horietaz hitz egiteko, eta horiek konpartitzeko, hitzaldi-solasaldi bat antolatu dugu».

Haurrentzako begiraleak

Teresa Martinezen hitzaldi-solasaldia 17:00etan hasiko da eta irauten duen bitartean, Denok Bat elkarteak kideen esanetan, umeak zaintzeko begiraleak jarriko dituzte; gurasoak gai honen inguruko zalantza guztiak argitu dituzten la-saitasunean.

Leitzako eta Aresoko pilotarien emaitzak

Pilota » Mikel Olazabal bigarren mailako zortzi onenen artean aurkitzen da Galartza VI.a hamaikan utzi ostein.

A. IMAZ

Asteburu oparoa izan da Leitzaldeko pilotarientzat.

Alde batetik ohi bezala Aurrerakoek partida ugari jokatu zituzten eta bestalde, Bigarren Mailako Eskuz Banakako Txapelketan, Mikel Olazabal aresoarrak final-laurdenetarako txartelalortu zuen iragan ostiralean Urretxun, Galarza VI.ari 22-11 irabazi ostein.

Azkenik, Oinatz Bengoetxea

aurkitzen da. Leitzarrak maiatzaren 3an, igandean, Patxi Ruizen aurkako partida jokatu du, 2009ko Banakako Txapelketan jokatu duen lehena.

Aurrerako pilotariak

Asteburu honetan Nafar Jokoak jarri zituzten berriro ere martxan. Leitzako pilotari gazteak herrian eta herriatik kanpo aritu ziren pilotan.

Txapelketei dagokionez, Irurita-ko Emakumeen Paleta Goman, Maria-Saioa Aristorena bikoteak 25 eta 30 galdu zuen.

Zaramagako Txapelketan, Anartz Olano-Tolosa bikoteak 18 eta 9 irabazi zuten Prado-Iturri-garen aurka.

Azkenik, Gravn Torneoaren finalerdietan, Jon Jaunarenak Nafarroaren izenean jokatu zuen jubilenetan. Ezin esan partida gogorra izan zenik, 22-1 irabazi baitzion Errioxaren izenean aritu zen Iturri-gari.



Igandean Bengoetxearen txanda. A. O.

Araba atzean utzi ondoren Zuberoa bakarrik gelditzen da

Ibarra » Valderejoko parajeetan ibili ziren herenegun Ibaratik joandako mendizaleak ikurrina eskuan.

A. IMAZ

Zazpi irteera, zazpi lurralde eta zazpi ikurriña. Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeek antolatutako ekimenean parte hartu duten herritarrek seigarren ikurrina Arabako Valderejon utzi zuten herenegun.

Geure Ikurriña loloan habiatu zen ekimena maiatzaren 23ean eta 24ean amaituko da, Zuberoan.

Valderejora eguzki bila

Mendizaleak Ibarren euripean irten baldin baziren ere, Valderejon ostarteak eduki zituzten. Lau ordu inguruko ibilaldia egin zuten ibartarrek, landa berde eta mendi artean.

Ohi bezala ez zen jende gehiegi urbildu, irteera puntuan eguraldia ez baitute lagun aurtengo honetan. Hala eta guztiz ingurune ederraz gozatzeko aukera paregabea eduki zuten ibartarrek.

Azken irteerari dagokionez, Zuberoara joango dira bi egunetarako ibartarrak. Ohiko mendi ibilaldirik ez da egongo oraingoan, bertako bizimodua ezagutzeko baita helburua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 034. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldiak

- **Altzo.** *Bakardadeari aurre giteko alternatibak: animaliak, ikasle gazteak, lagunak egitea* hitzaldia izango da udaletxean, 19:00etan hasita. Nagore Vazquezek bideratuko du.
- **Amezketeta.** Odola emateko aukera izango da asteartean, 18:30a eta 20:30a bitartean, balioaitzoko gelan.
- **Berastegi.** Zaintza palioatiboei buruzko hitzaldiak erretore etxeko aretoan 15:00etatik 17:00etara, herritar guztiei zuzenduta, baina bereziki heldu edo ezinduen zain-tzaile direnentzat.
- **Irura.** Arrate Plazaola bular min-biziaz ariko da Irurako Ikastolako aretoan 18:00etan.

Deialdiak

- **Alegia.** Haur eskolari buruzko bilera udaletxean 19:00etan. Datorren irailetik aurrera, herrian haur eskola (0-2 urte arteko umeentzat) martxan jartzeko asmoa dute eta, proiektu eta asmoen berri emango dute.
- **Altzo.** Altzoko saninazioak prestatzen hasteko lehen bilera Elordi elkartearen, 21:30ean. Antolatzaileek «ahalik eta herritar gehienak gerturatzea» nahi dute, ideia gehiago emateko eta festak herritar guztiei begira egiteko.

Antzerkia

- **Villabona.** *Eta zer?* antzezlanaren Dar-Dar ekoiztetxearen eskutik 09:15ean eta 11:00etan Gurea antzokian. LHko ikasleei zuzendua dago.

Kirolak

- **Tolosa.** Maiatzaren 9an, 17:00tan, Javier Urkolaren omeneko VIII. Herri Duetloia antolatuko da. Izen ematea, Shanti Kiroal-en eta informazioa tolosalde-kott@gmail.com helbidean.

Irteerak


- **Amezketeta.** Maiatzaren 3rako Lapurdi eta Nafarroa irteera antolatuko dute 60 urtetik gorakoentzat 27 eurotan. Izena 09:00etatik 14:00etara eman behar da udaletxean

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Azken astean sartuta...



KORSIKA ● Irla zoragarri hau bisitatzeko aukera izan du Onintzak Aste Santuan eta hau auzaltzen du: «Aste Santuko oporrak Korsikan igaro ditugu, bertako itsasertz zoragarrien adibide moduan, Bonifacio herritik ikus daiteke paisaia eder da hau bidaltzen dizuet». ONINTZA GARAIKOETXEA (IBARRA)



KANTABRIA ● Mungiatik ere parte hartzeko argazki bat heldu da Hitzaren Argazki Lehiaketara. Animalia bat du protagonistan bezala Ainhoaren argazkiak: «Amaiurren atara genuen, bertan katu bat lorontziaren atzean ikusi daikegu». AINHOA IZURIETA BILBAO (MUNGIA)



KANTABRIA ● Etxetik kanpo baina gertu izan da Jon Aste Santuan, Ason bailaran, hain zuzen ere. Argazki honekin hartu nahi du parte lehiaketan: «Aste Santu honetan Cantabriako Ason bailaran izan ginen. Eguraldiak asko lagundu ez zigan arren asko gozatu genuen paraje haietaz. Argazkian eguneko momentu onena ageri da, euritik babestuta, hamaiketakoan egin genuen bordarena...». JON AIZPURUA (ALEGIA)

A Agurrak



Urte askoan

Olatz Dorransoro (Tolosa).
Gure Olatzek gaur 9 urte.
9 muxu handi etxekoan partetik!

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

I. Arratzu Urdaibal mendi lasterketa 2009
El Pete Resentorta Memoriala www.ariatzu-urdaibal.com

eguna: **Maiatzak 2** 8:30 30 km 2000+

Euskal kopa 2009